BESTELAKO XEDAPENAK

OGASUN ETA FINANTZA SAILA
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1477

179/2013 DEKRETUA, martxoaren 12koa, San Mamés Barria, S.L. sozietatearen Administrazio Kontseilurako ordezkaria izendatzeko dena.

Maiatzaren 25eko 145/2010 Dekretuaren 3. artikuluaren arabera, Jaurlaritzaren Kontseiluak, orduan, Ekonomia eta Ogasun sailburua izendatu zuen administrazio honen ordezkari izateko San Mamés Barria, S.L. sozietatearen Administrazio Kontseiluan. Ondorioz, Carlos Aguirre Arana jauna formalki izendatu zen kargurako, eta hala inskribatu zen Merkataritza Erregistroan.

Lehendakariaren abenduaren 15eko 21/2012 Dekretuaren bidez, Jaurlaritzako sailburuak kargutik kentzea xedatu zen. Sailburu horien artean, Carlos Aguirre Arana jauna dago, Ekonomia eta Ogasuneko sailburu izaki. Kargu-uztearen ondorioz, automatikoki uzten zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari izateari San Mamés Barria, S.L. sozietatearen Administrazio Kontseiluan.

Administrazioa sozietate horren Administrazio Organoan ordezkatuta egon behar denez gero, beste ordezkari bat izendatu behar da aipatu zereginerako.

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko martxoaren 12an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Unean unean Ogasun eta Finantzetako sailburu-kargua duena izendatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari izateko San Mamés Barria, S.L. sozietatearen Administrazio Kontseiluan.

2. artikulua.– Ondare eta Kontratazio zuzendariari ahalmena ematen zaio, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari San Mamés Barria, S.L. sozietatean dagozkion bazkide-eskubideak baliatuz –azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretuaren 111.1 artikuluaren arabera–, dekretu hau sozietate horren organo eskudunari jakinarazteko, organo horrek dagokion oharpena eta behar diren izapideak egin ditzan, aipatu sozietatean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari izango den pertsona fisikoaren izendapena Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatzeko. Ondorioak Ogasun eta Finantzetako sailburua izendatzen den unean sortuko dira.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko martxoaren 12an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
RICARDO GAZAGAECHEVARRIA BASTIDA.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.